

Zure etorkizunaren giltza zurea da



Zure lan-eskarmentua
ziurtagiri ofizial
bihur ezazu.

**Akreditatzeko
unea iritsi da.
Egizu zuegatik**

**LORTU ZURE
AKREDITAZIO
PROFESIONAL
OFIZIALA**



INFORMA ZAITEZ HURBILEN DUZUN LANBIDE-HEZIKETAKO ZENTROAN
EDO **lh.nafarroa.eus** HELBIDEAN

GAITASUN PROFESIONALAK EBALUATU ETA EGIAZTATZEKO PROZEDURA (GEEP)



ZER DA GEEP?

Lan-eskarmentuaren bidez edo prestakuntzako bide ez-formalen bidez eskuratutako gaitasun profesionalak aitortu, ebaluatu eta ofizialki egiaztatzeko jarduketak sorta bat.



NORENTZAT DA GEEP?

Gaitasun profesionalak lan-eskarmentuaren bidez edo prestakuntzako bide ez-formalen bidez eskuratu dituen edonorentzat.

Interesa dakizuke baldin eta...

- Zure ikasketak alde batera utzi bazenituen eta zure lanbidea zure lanpostuan ikasi baduzu.
- Lan-gaitasunak eman dizkizuten ordainik gabeko jarduerak egin badituzu.
- Bide ez-formalen bidez prestatu bazara.



ZER BALDINTZA DITU GEEP-K?

Espainiar nazionalitatea edo bizilekua izateko edo lan egiteko baimena izatea ezinbestekoa da, bai eta:

LAN-ESKARMENTUAREN BIDEZKO SARBIDEA

1. mailako kualifikazio profesionalak

18 urtetik gorakoa izatea	2 urteko eskarmentua. 1200 ordu gutxienez
---------------------------	---

2. mailako kualifikazio profesionalak

20 urtetik gorakoa izatea	3 urteko eskarmentua. 2000 ordu gutxienez
---------------------------	---

Azken 15 urteetako eskarmentua hartzen da kontuan

PRESTAKUNTZA EZ-FORMALAREN BIDEZKO SARBIDEA


1. mailako kualifikazio profesionalak

18 urtetik gorakoa izatea	200 orduko prestakuntza ofizialki akreditatu gabeko jardueren bitartez
---------------------------	--

Cualificaciones profesionales de nivel 2

20 urtetik gorakoa izatea	200 orduko prestakuntza ofizialki akreditatu gabeko jardueren bitartez
---------------------------	--

Azken 10 urteetako eskarmentua hartzen da kontuan



NOLA GARATZEN DA PROZEDURA?

Hautagai gisa onartua izan eta gero, **hiru fase** daude:

AHOLKULARITZA-FASEA:

Aholkulari bat (arloan aditua den profesional batek) zurekin egongo da, aholkuak emango dizkizu eta lagunduko zaitu, Lanbide- eta Prestakuntza-Historia eta ebaluazio-faserakodokumentazio guztia presta dezazu.


EBALUAZIO-FASEA:

Fase honetan, egiaza diezazkizuten nahi duzun gaitasunak frogatu beharko dituzu. Ebaluatzaile batek (arloan aditua den profesional batek) aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, elkarriketa bat izango duzu eta, beharrezkoa izatekotan, gaitasun-probak egingo dira.

EGIAZTATZE- ETA ERREGISTRO-FASEA:

Ebaluatua izan eta gero, egiaztapenaren eskabidea egingo duzu eta administrazioak frogatutako gaitasun-unitateak erregistratu eta egiaztatuko ditu.

Gaitasun-unitateen egiaztapenak ondorio metagarriak ditu eta ofiziala da.



NOLA EMAN DEZAKET IZENA?

Bi modu daude:

1. Administrazioak argitaratzen dituen **deialdien** bidez
2. **Prozedura irekian parte hartzeko** eskabidea eginez
<http://a.educacion.navarra.es/acreditacion>

+ Informazio gehiagorako: **T. 848 433 560**



LORTU ZURE
AKREDITAZIO
PROFESIONAL
OFIZIALA

INFORMA ZAITEZ HURBILEN DUZUN LANBIDE-HEZIKETAKO ZENTROAN
EDO **lh.nafarroa.eus** HELBIDEAN